

2013KO URRIAREN 31N EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2013ko urriaren 31n, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenakartzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2013KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2013ko irailaren 26ko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

239/2013.- *Udalbatzari 171/2013 epaiaren barri emotea.*

240/2013.- *Iñigo de la Hoz jaunari garagarrilaren 27an UDAZKENA FEST ospatzeko baimena emotea.*

241/2013.- *Izandako kalteak dirala eta, María Victoria Joaristi Herrero andrearen erreklamazioa baiestea.*

242/2013.- *Iratxe Elgezabal Osinaga andreari, Itxas-Ganeko auzokideen komunitatearen izenean, Kultur Etxeko bideo gelea erabilteko baimena emotea.*

243/2013.- *La Funeraria La Auxiliadora er Residencia Zuetze S.L., enpresari 50. nitxoaren kontzesioa emotea.*

244/2013.- *Iratxe Elgezabal Osinaga andreari, Motako auzokideen komunitatearen izenean, Kultur Etxeko bideo gelea erabilteko baimena emotea.*

245/2013.- *Juan Antonio Uriarte Rementeria baimena emotea egurra atarateko.*

246/2013.- *Joseba Gomez Ormaza jaunari, Satur Gomez enpresaren izenean, baimena emotea basogintzako materiala batzeko eta zamatzeko.*

247/2013.- *IBON GONZALEZ URIGOITIA jaunari, CLAUDIO GONZALEZ MADARIAGA jaunaren izenean, udal lizentzia emotea Areaga bideko 4. zenbakian dagoen eraikinaren lehioak aldatzeko eta fatxada konpotzeko.*

248/2013.- *Sarratxu eta beste batzuk” 46. herri onurako mendian dagoan hainbat eukalipto multzoaren baso-aprobetxamendua kontratatzeko adjudikazioaren prozedurari ekitea.*

249/2013.- *IZASKUN MAURAZA SANCHEZ andreari, IRATXE MAURAZA SANCHEZ andrearen izenean, udal lizentzia emotea Zarrakoa bideko 9. zenbakiko 3. eskerran dagoen etxebizitzako suetea eta bainugela barritzatzeko.*

250/2013.- *Uribe kaleko 10.eko eraikinaren beheko solairuan dagoan lokalak merkataritza erabilera daukan ezkerre, Promociones Gailur Alde S.L. enpreari lizentzia emotea erabilera hori aldatzeko.*

251/2013.- *Uribe kaleko 12.eko eraikinaren beheko solairuan dagoan lokalak merkataritza erabilera daukan ezkerre, Promociones Gailur Alde S.L. enpreari lizentzia emotea erabilera hori aldatzeko.*

252/2013.- *Miren Arkaitz Gallo Elorriaga andreak lanaldia murrizteko egindako eskabidea onartzea.*

253/2013.- *Seigarren poligonoko 168 b lursailean egiten dabilzen obrak berehalakoan eteteko agintzea.*

254/2013.- *Iraungipena dala eta, Deiner Alberto Gallon Moreno jaunari Bakioko biztanleen udal erroldaren inskripzioan baja emotea.*

255/2013.- *Pertsona batzuei Biztanleen Udal Erroldan baja emotea.*

256/2013.- *Goitisolalde kaleko 6.ean dagoan "La Mota" eraikineko jaubeen komunitadeari udal lizentzia emotea fatxada barrizteko eta teilatua eta sarbideak konpontzeko.*

257/2013.- *JOSEFA BILBAO MENDIZABAL andreari udal lizentzia emotea Basigoko bide nagusiko 12. zenbakiko 3. ezkeran (Landaberri) dagoen etxebizitzako bainugela barriztatzeko.*

258/2013.- *NM CREACIONES Y PROYECTOS, S.L. enpreseak aurkeztutako faktura onartzea.*

259/2013.- *Sabino eta Miren Edurne Garay Abio neba-arrebei baimena emotea, beti be 103. erregistroko finkatik "Zarratuchu Deposito" lursaila banantzeko.*

260/2013.- *Eugenia Asla Armendariz andreari baimena emotea, beti be gorago 668 N erregistroko finkatik 11.287 m2. banantzeko.*

261/2013.- *Itxas-Alde dantza taldeari Andra Mari eguneko eta Folk jaialdiko ekitaldietarako diru-laguntzak emotea.*

262/2013.- *BIRJEÑE BILBAO ABIO andreari, Itxas-Alde dantza taldearen izenean, baimena emotea probalekuan Itxas-Alde dantza taldearen batzar nagusia egiteko.*

263/2013.- *Udal aurrekontuaren 4. aldarazpena onestea.*

264/2013.- *ANDER GORROTXATEGI ZURIMENDI jaunari baimena emotea probalekuan urriaren 26an Oktober Jaia ospatzeko.*

265/2013.- *Leire Uriarte Lemona bake epaitegiko idazkaritzako zereginak ixteko dekretua.*

266/2013.- *Reina María Blandón Galiano andreari ofiziozko baja emotea biztanleen udal erroldan.*

267/2013.- *IGOR MALLONA UNDABEITIA jaunari udal lizentzia emotea San Pelaioko bide nagusiko 70. zenbakiko 1. ezkerrean (Izpiorlegi) dagoen etxebizitzako suetea eta bainugela barriztatu eta barruko ateak aldatzeko.*

268/2013.- *Udal aurrekontuaren 5. aldarazpena onestea.*

269/2013.- *Udal aurrekontuaren 6. aldarazpena onestea, udalbatzak berronetsi daian.*

Alkateak galdetu dau dekretuei buruz ia zinegotziren bate-batek ezer esateko daukan edo argibideren bat eskatu gura dauan.

Horren harira, 239/2013 zk. dekretua dala-eta Felix Jauregizar zinegotziak idazkariari epaiaren eratorria azaltzeko eskatu deutso.

Hortaz, idazkariak ondokoa adierazo dau:

Maria Rosario Mintegi andreak Armurua izeneko baserriko alboan dagoan etxolea berriztatzeko lizentzia eskatu eban.

Juan Antonio Uriarte Rementeria jaunak udaletxe honetan honen barri emon eban: Maria Rosario Mintegi andreak, Armurua izeneko baserriko alboan dagoan etxola hori handitu ebala; harek egindako eskabidean aurreikusten ez diran obrak eginez.

Hori dala eta, Alkatetzaren 153/2009 eta 193/2009 Dekretuen bitartez, Mintegi andreari eskatu jakon egindako handitze obrea legalizatu ahal izateko lizentzia eskatzeko, horretarako hilabeteko epea emonaz, ze, osterantzean, egindako obrea behera botatzea aginduko jakola-eta. Era berean, legalizatzeko bete behar ebazan urigintzako baldintzak zeintzuk ziran gogoratu jakozan, hau da, herriko urigintzako plangintzaren arau subsidiarioetan azaldutakoak.

Hilabete pasa arren, Mintegi andreak lizentziarik eskatu ez eban ezkerro, Uriarte jaunak administrazioagazko auzi-errekurtsua aurkeztu eta Bilboko Administrazioagazko Auzien I. Epaitegiak 1222/2010 zk.prozedura izapidetzeari ekin eutson.

Epea ondo pasa ostean, Maria Rosario Mintegi andreak udaletxean idatzia aurkeztu eban adierazoz ez ebala handitze obrarik egin, egindako obrea lehendik egoan etxolea berriztatzea baino ez zalako izan, eta, beraz, berriztatze lanak legalizatzeko lizentzia eskatu eban.

Udal teknikariek harek egindako obrea etxolea handitzea ekarri ebala adierazo arren, handitze obreak hartutako esparruan aurretiaz eraikinik ez egoalako, salutatutako obrea legalizatu egin zan Alkatetzaren Dekretuaren bagilaren 7ko 120/2011 bitartez.

Ondorioz, lizentzia horren aurka Juan Antonio Uriarte Rementeria jaunak administrazioagazko auzi-helegitea ipini eta epaitegiak arrazoia emon eutson, izapidetu eban 401/2011 zk. prozedura barruan. Izan be, prozedura horretan kaleratutako 89/2013 epaiaren barri Udaltzari 2013ko maiatzaren 28ko osoko bilkuran emon jakon. Eta bertan ageri da egindako obrea behera bota behar dala, eraikitakoa berriztatze obrea barik handitze obrea izan zalako.

Orain barriz, goian aitatutako 1222/2010 zk. auzi-prozedurean emondako epaiak, 89/2013 epaia berronetsi baino ez dau egin.

Felix Jauregizar zinegotziak idazkariari galdetu deutso legez kanpo egindako obra hori ia nork bota behar dauan behera eta gastuak nork ordaindu behar dauzan.

Idazkariak dinotso Epaitegiak udalari hamar eguneko epea emon eutsola epaia beteteko eta bete ez dauan ezkerro, Uriarte jaunak eskubidea daukala epaitegiari eskatzeko udala epaia betetera derrigortzeko, eta, orduan, udalak obrea erausteko hile biko epea izango leukela, gastuak udalaren pentsura izanik, lizentzia emon ebalako.

3.- HERRIKO HONDAKIN SOLIDOEN ETA PAPERAREN ETA KARTOIAREN GAIKAKO BILKETARI BURUZKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETAREN ESLEIPENARI BURUZKO PROZEDUREARI HASIKERA EMOTEA ERABAGI, BAI ETA KONTRATAZINO ESPEDIENTEA ONARTU BE, ADMINISTRAZINO KLAUSULEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK BARRUAN DIRALA.

Administrazino klausulen eta baldintza teknikoek agiriaren kopia zinegotzietan daukien ezkererako, Aitor Apraiz alkateak ondorengo azalpenak eman dauz:

Indarrean dagoan etxeko zabor bilketa eta paperaren eta kartoiaren gaikako bilketari buruzko zerbitzua aurtengo abenduaren 31n amaitzen dan ezkererako, aurrerantzean zerbitzua hori emoteko aukera bi izan doguz, hau da, Uribe-Butroi mankomunidadeak zerbitzua emotea aurretiaz udala bertako kide eginaz, edo, bestela, udala arduratzea zerbitzua emoteaz. Aukera biak aztertu eta gero, ondorioztatu dogu udalak zerbitzua emotea ekonomiaren aldetik errentagarriago dala, ze mankomunidadearen zerbitzuaren kostua merkeagoa izan arren, udalak erakunde horretako partaidea izatearren kuota ordaindu beharko leukelako.

Felix Jauregizar zinegotziak adierazo dau:

Zerbitzuaren aurrekontua zelan osatu dan jakin gura geunke, ze zehaztu beharreko datuak pleguetan ez dira ageri, esaterako, zenbat zaborrontzi dagozan, bai etxeko zabor bilketarako, bai eta kartoi eta paperaren bilketarako be, eta non dagozan kokatuta, proposamena egiteko orduan lizitatuak datu horreen guztiaren jakitun egon beharra izango dau-eta.

Alkateak dinotso: zerbitzuaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan merkaturuan dagozan prezioak kontuan hartu eta, gaur egun, udalak emoten dauan zerbitzuaren kostuagaz alderatu da, hori batetik; eta gero, bestetik, zaborrontzietan jagokenez, egia da pleguetan ez dala euren kopurua zehazten, baina lizitatuak proposamenak egin orduko horreei buruzko informazioa guztia eskura izango dabe udal teknikarien bitartez.

Idazkariak dino zerbitzuaren kostuaren balorazioa bai egin beharko litzatekela, baina, informazio batzordean esan zan modura egin dana da indarrean dagoan zerbitzuaren kostua hartu oinarri modura, zerbitzuaren nondik-norakoa antzekoa dala kontuan hartuz. Horrez ganera, pleguetan zehaztea gaur egun dagozan zaborrontzi kopurua eta euren kokapena, uste da ez dala behar-beharrezkoa; izan be, proposamenak aurkezteko zabalduko dan epean lizitatuak aukerea izango dabe udal teknikariak hartuemonetan jarteko, gura daben informazioa eskuratzeko asmoz, esaterako, zaborrontzi kopuruaren edo udalerraren ezaugarrien edo ibilgailuak egin behar dauan traiektuaren ganean, edo beste edozeren ganean.

Felix Jauregizarrek adierazo dau BILDUK proposatu gura dauala pleguetan jasotea zerbitzuan arituko diran beharginak sektoreari buruzko lurraldeko hitzarmenaren barruan egongo dirala; izan be, baldintza hori, daborduko, hainbat udaletan ipinten hasi dira-eta, bai eta Eusko

Jaurlaritzan bertan be. Horren helburua da enpresek egiten dabezan abusuak ekiditzeko asmoz, hau da beharginek baldintza ekonomiko eta laboral negargarririk izan ez daien.

Azkenik, zinegotziek botoa emoteari ekin deusien ezker, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

Herriko hondakin solidoen eta paperaren eta kartoiaren gaikako bilketari buruzko zerbitzu publikoaren kudeaketaren esleipenari buruzko prozedureari hasikera emotea, bai eta kontratazino espedientea onartzea be, kontratua eraenduko dabena Administrazino Klausulen eta Baldintza Teknikoen agiriak barruan dirala. Gauzak horrela, adjudikazinoa prozedura zabal bitartez izapidetuko da; eta datorren urtetik aurrera urte bakoitzeko udal aurrekontuan ordainketa kreditua zainpetu beharra egongo da, beti be jagokozan gastuei aurre egiteko, kontratuak 2014an hasita zortzi urteko iraupena izango daukala kontuan hartuta eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 85.000,00 euro urteko (BEZa barruan dala).

Administrazino Klausulen Agirian haxe jasotea: zerbitzuan arituko diran beharginei sektoreari buruzko lurraldeko hitzarmena aplikatuko jakela, hori ganera gitxienez.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

4.- 2013KO UDAL AURREKONTUARI JAGOKON 6. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ; IZAN BE, ALDARAZPENA KREDITU-TRANSFERENTZIA BIDEZ EGINGO DA.

Aitor Apraiz alkateak adierazo dau: udal aurrekontuaren aldarazpena gastuen kreditu-transferentziaren bitartez egiten da; horrela bada, 511.210.00.98 aurrekonturen gastu partidatik 10.000 eurori baja emon eta 121.221.00.01 aurrekontuaren gastu partidari gehitze jako, hori guztiori zinegotziei emondako agiritan ageri dan modura.

Felix Jauregizar zinegotziak dino udal aurrekontuetako partidetan zainpetzen dan dirua sarritan ez dala erabilten (esaterako, lorezaintza) eta erabilten dala, barriz, beste partida batzuk gehitzeko, horraino ados, baina lorezaintzaren kasuan, hain justu, esan beharra dago udal jaubetzako lorategiak aurten hain egoera txarrean egonik, ez dala logikoa aurrekontuan zainpetutako diru osoa mantenimendurako ez erabiltea, beharginak kontratatuz udaldian jarduteko. Herri bideen kasuan berdin gertatzen da.

Iker Muruaga zinegotziak erantzun deutso esanez lorezaintzarako zainpetutako ordainketa kredituaren zati bat ez dala erabili, itxaropena izan dogulako Foru Aldundiak baimena emotea diru horregaz lorezaintzako tresneria erosi ahal izateko; ze erosteta inbertsinoa izango litzateke eta, beraz, doikuntza plana urratzea ekarri leike. Beraz, Aldunditik

erantzunik jaso ez dan ezkeru, ordainketa kreditu horretatik 10.000 euro kiroldagian konponketak beharrak egiteko erabiltea erabagi dala.

Segiduan, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

2013ko udal aurrekontuari jagokon 6. aldarazpen espedientea onartzea, kreditu transferentzia modalidadean.

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
511.210.00.98	Herri bideak konpontzea eta zaintzea	20.500,00 €	10.000,00	10.500,00 €
		20.500,00 €	10.000,00 €	10.500,00 €

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
121.221.00.01	Udal eraikinen konponketa	27.607,48 €	10.000,00 €	37.607,48 €
		27.607,48 €	10.000,00 €	37.607,48 €

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

5.- 2013KO ZEMENDIAREN 25A EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DALA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Hasi eta berehala, Aitor Apraiz alkateak adierazo dau adierazpen instituzionalaren testuaren kopia zinegotzi guztiei banandu jaken ezkerro, ez dagoala bozkatzea baino besterik.

Esan beharra dago adierazpen hori EUDELEk bialdutakoa dala.

Segiduan, Amets Jauregizar zinegotziak berbea hartu eta dino BILDU/BAKIO taldea testuagaz bat datorren arren konpromiso gehiago erantsi gura deusola:

Eudelek egindako irakurketarekin bat etorri ondorengo konpromisoak hartzea eskatzen diogu Bakioko udal gobernuari.

-. Berdintasun-politikak garatzeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) urtetik urtera indartzea. Aurrekontuan islada izatea eskatzen dugu. Partida baten barruan edo partida berezitu batean.

-. Parte-hartzean oinarritutako prozesuak abian jartzea edo bultzatzen jarraitzea, jai-giroko erritu sinbolikoetan eta eremu soziokultural guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko. Konpromisoa hartzeaz gain, bide bat definitzeko lan talde bat sortzea eskatzen diogu udaleko alderdi eta eragile desberdinekin.

-. Beste udalerrri batzuekin elkarlanean hastea edo parte hartzen jarraitzea sare-programen bitartez abian jarritako eremu kolektiboetan, Gipuzkoa Berdinbidean programan adibidez. Programa horien arabera, udalek dirua jarri behar dute emakumeen aurkako (eta bereziki emakume gazteen aurkako) indarkeria prebenitzeko jardunak garatzeko, gizonetik elkarlana bultzatzeko, adierazpen honetan adierazitakoaren ildo beretik, eta ahalduzko eskolak abian jartzeko .

-. Emakume gazteen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko erakunde arteko lan-prozesuak (Beldur barik programa adibidez) baliabide tekniko eta ekonomikoekin sendotzea. Gai honetan ere, erabakiak aurrekontuetan isla izatea eskatzen dugu.

-. Lan kolektiboa abian jartzea eta/edo indartzen jarraitzea, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta hobetzeko koordinazio-protokolo lokal edo mankomunatuaren esparruan.

-. Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume eta taldeentzako tokiko arreta-zerbitzuak eratzea edo berdefinitzea, indarkeria-adierazpen desberdinei eta indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen premia eta interes desberdinei erantzuteko.

Azkenik, mugimendu feministak egun horretarako antolatutako jarduera eta mobilizazio guztiekin bat egiteko deia egin nahi dugu. Egun horretan kalera irten behar dugu, eta emakume guztiok mota guztietako indarkeria matxistatik aske izan arte borrokan jarraituko dugula oihukatu.

Aitor Apraiz alkateak horrerri eratzunez dino EAJ/PNV taldeari ez jakola ondo begitantzen aurretiaz aztertu barik BILDU/BAKIO taldeak proposatutako konpromisoak hemen bertan onartzea; eta, horregaitik bakarrik ez bada be ez dagoala prest onartzeko, hori ganera konpromiso horreen balorazinoa egiten sartu barik.

Horren haritik, Elsa Imatz zinegotziak Ametsi dinotso informazino batzordean aurkezteko aitaturako proposamena.

Amets Jauregizar zinegotziak erantzun deutso haxe esanez: *bada sasoia berbatik egintzatarara pasateko, ze, esate baterako bada urtebete "Beldur Barik" programa dala-eta udalbatzarrak 2012-10-24an hiru puntu onartu ebazala, eta gaur da eguna programa horrezaz informazino batzorde baten be berba egin ez dana. Beraz, iruditzen jat udalbatzarrak hartu ebazan erabagiok udal gobernuak ez dauzala bete, eta, beraz, berbea albo batera itxi eta ekintzatarara pasa beharra dagoala uste dogu. Eta hori berriro gertau ez daiten, Bilduk lan ildo bat proposatzen dau udal talde biak batera garatzeko, eta udalbatzarra da organo gorena konpromisoak hartzeko, osterantzean, ez da ezer egiten-eta.*

Aitor Apraiz zinegotziak dinotso udalbatzarrerera ekarri dogun testua zinegotziei banandu jakena dala, eta EAJ/PNV taldeak ez dau horrezaz gain beste ezer onartuko. Dana dala, horrek ez dau gura esan Bilduk testuari egin gura deutsozan ekarpenak arbuigarriak direnik, EAJk ez dauzala onartuko baino, aurretiaz aztertzeo erarik izan ez dualako.

Ametsen galdereari erantzunez Idazkariak dino BILDU/BAKIO taldearen proposamena bozkatu ahal dala.

Paloma Epalza eta Gorka Renteria zinegotziek zalantzan ipini dabe udalbatzara onartzera ekarri dan testuari eransketarik egitea, aurretiaz informazino batzordean aztertu barik, ze horrela egin daiteke gai zerrendatik kanpo mozino modura aurkeztu ezkeru. Ganera, Palomak erantsi dau adierazoz BILDUK gaiak informazino batzordeetan aztertzea exijitzen dauala hainbat dokumentazinogaz lagunduta.

Ametsek dinotse: zinegotziok udal gobernuaren aldetik informazinoa lortzeko daukagun eskubidea legez bardina da, baina, hori horrela izan arren, praktikan ez da horrela izaten, talde bateko eta besteko zinegotzien artean aldea dagoalako, beraz, danok ez gagoz egoera bardinean; zergaitik eta, EAJ taldeak informazinoa bere esku daukalako eta, horrenbestez, desabantailan egokeran BILDU taldeak mozinoak aurkeztu beharra izaten dauz eta inoizkotan gertau da gai zehatz bati buruz BILDUK mozinoak aurkeztu eta EAJk, hori ikusirik, bat-batean mozinoak aurkeztea be eta biak bozkatzea.

Hori dala-eta EAJ/PNV eta BILDU/BAKIO taldeetako zinegotzien artean eztabaida izan da, azken honeen proposamena bozkatzeari buruz.

Horren aurrean, hau da, EAJ/PNVk argudiatzen dauala BILDU/BAKIOren proposamena informazino batzordean aztertu ez izana, idazkariak adierazo dau informazino batzordean aztertzea puri-purian legezkoa dan arren, udalbatzarrak bakarrik EUDELen testuari buruzko

erabagia hartu behar dauala, baina Bilduko zinegotziek adierazo daikela testuagaz ados dagozan arren, ez dabela aldeko botorik emongo euren konpromisoak erantsi ezik.

Segiduan, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

2013ko zemendiaren 25a emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dala eta, adierazpen instituzionala onartzea.

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA
AZAROAK 25**

Azaroaren 25ean ospatzen den “Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna” dela-eta, sexu-erasoetan jarri nahi dugu arreta, batez ere, neska gazteek jasaten dituztenetan.

Azken urteotan, aldaketa nabarmenak izan dira emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanetan. Hala ere, eta aurrerapenak gorabehera, askotan ikus dezakegu harreman hauek gure gizartean sustraiturik dagoen desberdintasunean oinarrituta eraikitzen direla oraindik ere, eta, ondorioz, eguneroko jarreretan agertzen dela, desberdintasun hori ugarituz eta betikotuz.

Hain zuzen ere, desberdintasun-testuinguru horretan sartu behar ditugu erasoak, izan ere, eraso horietako asko hain daude normalizatuta eta hain dira egunerokoak, neska gazteek nekez antzeman ditzakete.

Zenbait faktorek neska gazteek sufritzen dituzten hamaika mikro eraso sexistak erakusten dizkigute, baina, leunak direnez, normalizat hartzen ditugu; faktore horietako batzuk honakoak dira: nesken sexualizazio etengabea; emakumearen gorputza desira-objektu gisa ikustea; kontrola ezinezko sexualitatea duen gizonaren estereotipoa, bere ekintzen erantzukizun orotik salbuesten duena; edota jazarpenaren naturalizazioa, hurbilketa sexualeko estrategia gisa.

Emakumeenganako indarkeria errotik desagerrarazteko lanak, lehenik eta behin, agerian utzi behar ditu indarkeria mota horiek, desberdintasuna eta sexu-indarkeria sustatzen dituzten mezu sexistak antzemanaz.

Era berean, beharrezkoa da, erasoak prebenitzeko erabiltzen diren estrategietan, beldurraren bitartez euren segurtasunaren erantzule izatea saihesten duten mezuak helaraztea neska gazteei. Halaber, mezu horiek nesken jabekuntza sustatu beharko lukete eta sexualitate aktiboa izateko eskubidea aintzatetsi, betiere, neskek estigmatizatu gabe edo jarrera arriskutsuen erantzule egin gabe.

Funtsezkoa da hezkuntza afektibo-sexuala izatea, gazteek errespetuan eta berdintasunean oinarritutako sexualitatea gara dezaten. Beharrezkoa da eurekin berariaz hitz egitea, eraso mota oro prebenitzeko izan behar duten papera azpimarratuz, eta adieraztea euren jarrera sexisten eta euren testuinguruaren gaineko erantzukizuna izan behar dutela.

Hori guztiori dela-eta, Udal honek:

KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso, parte-hartzaile eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazteek eta nerabeek jasaten duten indarkerian.

Horretarako, ekimenak abiaraziko ditu, emakumeak, batez ere emakume gazteak, zaurgarritasunari aurre egiteko eta jabeak sustatzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzeko. Aldi berean, jarrera sexistak prebenitzeko eta eguneroko mikro eraso sexisten kontrako jarrera aktiboa eta irmoa hartzeko lan egingo du.

Era berean, GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki herriko neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera, bai eta “Beldur Barik” gazteen arteko berdintasunerako prebentzio eta hezkuntza programan ere.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira, azalpen zatian azaldutako talde horren konpromisoak adierazpenari erantsi ez jakozalako.

6.- BAKIOKO UDALAK ONARTUTAKO FAKTUREN ORDAINKETEN BETEARAZPENARI BURUZKO EGOERAREN BARRI EMON.

Garagarrilaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontuhartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2013ko urriaren 4ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko, eta alkate jaunak horren edukia irakurri dau, agiri hori zinegotzi guztiek daukien arren. Izan be, ordaintzeko epemugan ordaindu bako fakturen zenbatekoa guztira 1.275.579,02 eurokoa da, egiaztagiriri horri erantsitako zerrendaren arabera.

7.- TRAKZINO MEKANIZKOKO IBILGAILUEN GANEKO ZERGEAREN ALDARAZPENAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.

Aldarazpenaren nondik-norakoaren ganean zinegotziek jakitun diran ezkerero. Gai horrezaz, Felix Jauregizar zinegotziak BILDU/BAKIO taldearen izenean, hauxe adierazo da:

Aldarazpen horren barri aste honetako astelehenean izan dogu eta, beraz, ez dogu behar dan modura aztertzeke denborarik izan. Edozelan be, gura geunke, gaur egun, ohikoa dan progresibitatea aplikatzea zergaren zenbatekoa aldarazoteko orduan; izan be, ezin dogu onartu udalbatzar honetara ekarri dan proposamenaren igoerea.

Ondoren, informazino batzordean aztertutakoaz eta espedientean ageri diran dokumentazinoagaz bat etorritz, EAJ/PNVko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak diran ezkerero, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Trakzino mekanizkoko ibilgailuen ganeko zergea arautzen dauan ordenantza fiskalaren aldarazpena behin-behinean onartzea, Aldarazpena edukia:

6. artikulua

1.- Zergea tarifa taula honen arabera eskatuko da:

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTEA	EURO
<i>A) Turismoak:</i>	
<i>8 zerga-zaldi baino gitxiago</i>	<i>23,45</i>
<i>8-11,99 zerga-zaldi</i>	<i>65,77</i>
<i>12-13,99 zerga-zaldi</i>	<i>133,67</i>
<i>14-15,99 zerga-zaldi</i>	<i>138,82</i>
<i>16-19,99 zerga-zaldi</i>	<i>172,92</i>
<i>20 zerga-zaldi baino gehiago</i>	<i>200,11</i>
<i>B) Autobusak:</i>	
<i>21 plaza baino gitxiago</i>	<i>154,80</i>
<i>21-50 plaza</i>	<i>220,46</i>
<i>50 plaza baino gehiago</i>	<i>275,60</i>
<i>C) Kamioiak:</i>	
<i>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</i>	<i>78,57</i>
<i>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>154,80</i>
<i>2.999tik gora 9.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>220,46</i>
<i>9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</i>	<i>275,60</i>

D) Traktoreak:

<i>16 zerga-zaldi baino gitxiago</i>	<i>32,83</i>
<i>16 - 25 zerga-zaldi</i>	<i>51,60</i>
<i>25 zerga-zaldi baino gehiago</i>	<i>154,80</i>

E) Trakzino mekanikodun atoiak eta erdiatoiak:

<i>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</i>	<i>32,83</i>
<i>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>51,60</i>
<i>2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</i>	<i>154,80</i>

F) Beste ibilgailu batzuk:

<i>Ziklomotorrak</i>	<i>8,53</i>
<i>125 cc arteko motozikletak</i>	<i>8,70</i>
<i>125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko motozikletak</i>	<i>14,63</i>
<i>250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak</i>	<i>29,23</i>
<i>500 cc baino gehiagotik 1.000 cc arteko motozikletak</i>	<i>58,45</i>
<i>1.000 cc-tik gorako motozikletak</i>	<i>116,90</i>

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartu beharko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko dau aldatzen ez dan bitartean.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jaureguizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaechen zinegotziek, barriz, proposatutako aldarazpenaren aurka bozkatu dabe, aitatutako arrazoiak dirala-eta.

8.- ESTOLDA ZERBITZUEN PRESTAZINOAREN GANEKO TASEAREN ALDARAZPENAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.

Aldarazpenaren nondik-norakoaren ganean zinegotziek jakitun diran ezkerro, espedientean ageri diran dokumentazioagaz bat etorri, EAJ/PNVko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak diran ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Estolda zerbitzuen prestazinoaren ganeko tasea arautzen dauan ordenantza fiskala behin-behinean onartzea, aldarazpenaren edukia hauxe izanik:

Estolderia zerbitzuak emoteagaitik ordaindu beharreko zerga kuota 9,18 eurokoa izango da hiru hilabeterik behin erabiltzaile bakoitzeko.

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartu beharko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, 2014an sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko dau aldatzen ez dan bitartean.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jaureguizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, proposatutako aldarazpenaren aurka bozkatu dabe, aurretiz aitaturako arrazoiak dirala-eta.

9.- IBILGAILUAK FINKA PARTIKULARRETARA ETA GARAJEETARA SARTU ETA HANDIK URTETEKO ERABILKERA PRIBATIBOAGAITIKO EDO UDAL JABARIAREN APROBETXAMENDU BEREZIAGAITIKO TASEAREN ALDARAZPENAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.

Aldarazpenaren nondik-norakoaren ganean zinegotziek jakitun diran ezkerro, espedientean ageri diran dokumentazinoagaz bat etorritz, EAJ/PNVko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak diran ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Ibilgailuak finka partikularretara eta garajeetara sartu eta handik urteteko erabilkera pribatiboagaitiko edo udal jabariaren aprobetxamendu bereziagaitiko tasea arautzen dauan ordenantza fiskala behin-behinean onartzea, aldarazpenaren edukia hauxe izanik:

Tasa hau aplikatzean ondokoak hartu behar dira kontuan:

- 1. Erkidegoarenak ez diran garajeak: 44,76 euro urtean.*
- 2. Erkidegoen garajeak:*
 - 2.1. Hiru metroko sarrerea: 44,76 euro urtean*
 - 2.2. Hiru metrotik gora metro lineal bakoitzeko 70,76 euro gehituko dira urtean; zatikiak horren proportzinozko gehikuntza dakarre.*

2.3. Aurrekoa gorabehera, ibilgailu plaza bakotxagaitik 14,16 euro ordaindu behar dira.

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartu beharko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko dau aldatzen ez dan bitartean.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jaureguizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeché zinegotziek, barriz, proposatutako aldarazpenaren aurka bozkatu dabe, aurretiz aitaturako arrazoiak dirala-eta.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 91. artikularen arabera).

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV taldearen izenean, dino mozino bat aurkeztu beharra daukala, euren ustez presazkoa dalako, eta ganera lehen be informazino batzordean horren ganean berba egin dala; izan be, gaia hauxe da:

“LEHENENGOA.- SNIACE, S.A. enpresearen eta Bakioko Udalaren arteko 1956-06-28ko eskritura publiko bitartez partzuergo bat osotu zan 45 urteko epean, “Sarratxo-Gaubieta-Andiño” izeneko erabilera publikoko 46. mendiaren eta Bakio udalerrriaren jaubetzako ondare mendi biren eremu batzuk eukaliptoz birlandatzeko eta ustiatzeko; udalaren partaidetzea %45ekoa zan eta SNIACE S.A. enpresearena %55ekoa.

BIGARRENA.- 1996-04-29ko eskritura publiko bitartez, partzuergo hori luzatzeko erabagia hartu zan 2013-12-31ra arte; partzuergo horren barruan “Sarratxo-Gaubieta-Andiño” izeneko erabilera publikoko 46. mendiaren eremu batzuek jarraitu eben. Kasu honetan udalaren partaidetzea %52koa zan eta SNIACE S.A. %48koa.

HIRUGARRENA.- Udalbatzak, 2012ko bagilaren 28ko osoko bilkuran, honakoa erabagi eban: "Sarratxu eta bestelakoak" izeneko erabilera publikoko mendiaren baso aprobetxamendua arautzen eben Baldintza Ekonomikoen Agiria eta Baldintza Tekniko eta Fakultatiboen Agiria onestea, beti be udalak “SNIACE S.A.” enpreseagaz egindako partzuergoaren barruko mendiaren eremuetako baso aprobetxamenduan eukan partaidetzeari egokonez eta enpresa horrek, gorago aitaturako dokumentazioaren arabera, baso aprobetxamendu hori egingo ebala kontuan hartuta.

LAUGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Baso Zaintza eta Antolamenduko Ataleko buruak 2013ko urriaren 2ko data daukan txostena egin eban; txosten horretan, gogoeta batzuk egin ostean, honakoa proposatu eban: aprobetxamendu horretarako ezarritako bermearen zenbatekoa adjudikazioaren %10eko kopuruan ezartzea. Horregaitik, udalak 2012/06/28an onetsitako 2012/06/20ko baldintza ekonomikoen agiriaren 4. puntuaren (fidantzak) paragrafoa aldatzea proposatu eban; halanda ze, modu honetara idatzita geratuko zan:

“Partzuergoaren Ebazpenari buruzko Txostenean aitatzen diran lanen burutzapena bermatzeko eta aprobetxamendu honen zuzeneko betearazpena ziurtatzeko asmoz, Sniacek Bakioko Udalean banku abal baten bitartezko fidantza bat gordailutu beharko dau 24.596 euroko kopuruan, beti be azken lotea ebagiteko lizentzia eskuratu daian. Fidantza hori urtebeteko epean itzuliko jako ebagitako azkeneko lotearen amaierako azterketako akta izenpetzen danetik zenbatzen hasita, behin aitatutako lanak egin dirala eta kalterik ez dagoala egiaztatu eta gero.”

Txosten barri emon jaken korporazino honetako zinegotziei.

Atalburuaren txostena ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak 2013ko urriaren 29an bialdu dau aldatutako baldintza agiria. Hori dala eta, aldarazpen hori indarrean sartu daiten, udalbatzak onetsi behar dau; horrek beregaz dakar 2012/06/28an onetsitako agiria aldatzea, baina bakar-bakarrik baldintza ekonomikoen agiriaren 4.puntuaren (fidantzak) azken paragrafoari jagokonez.

Horrenbestez: 1) Foru Aldundiaren txosten horretan zehaztutako zirkunstantziak kontuan hartuz, 2) Bakioko Udalak aldarazpenari jagokon erabagia hartzeko daukan preminan oinarri hartuz (izan be, baldintza ekonomikoen eta baldintza tekniko eta fakultatiboen agirian azaltzen diran lanak 2013ko abenduaren 31rako amaitu behar dira), 3) Erabaki horrek udalaren kutxan baso aprobetxamenduaren IV. loteari jagokon zenbatekoa sartzea ahalbidetuko dauela aintzakotzat hartuz (izan be, diru sarrera aurtengo ekitaldian kobratzea aurreikusita dago), 4) Partzuergoaren iraupena aurtengo abenduaren 31n amaitzen dala kontuan hartuz, eta 5) Beharrak geratuta egokeran enpresea dirua galtzen dago; EAJ-PNVko udal taldeak Bakioko Udalbatzari proposatzen deutso baldintza ekonomikoen agiriaren 4.puntuaren (fidantzak) azken paragrafoa aldatzea, idatzita geratu daiten txostenean azaldutako baldintzen arabera”.

Jarraian, Udalaren Osoko Bilkurak gai hori premiazkoa dala onartu dau aho batez, bertaratutako EAJ/PNV eta BILDU/BAKIO udal taldeetako zinegotziek korporazinoa legez osotzen daben guztiak izanik.

Azkenik, EAJ/PNV taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz eta bertaratutako gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak erabagi hau hartu dau:

Udalbatzak 2012ko bagilaren 28ko bilkuran hartutako erabagiaren aldarazpena onestea, baina bakar-bakarrik “Sarratxu eta bestelakoak” izeneko erabilera publikoko 46. mendiaren baso

aprobetxamendua arautzen daben baldintza ekonomikoen agiriaren 4.puntuaren (fidantzak) azken paragrafoari jagokonez; gauzak horrela, honela idatzita geratuko da puntu hori:

“Partzuergoaren Ebazpenari buruzko Txostenean aitutzen diran lanen burutzapena bermatzeko eta aprobetxamendu honen zuzeneko betearazpena ziurtatzeko asmoz, Sniacek Bakioko Udalean banku abal baten bitartezko fidantza bat gordailutu beharko dau 24.596 euroko kopuruan, beti be azken lotea ebagiteko lizentzia eskuratu daian. Fidantza hori urtebeteko epean itzuliko jako ebagitako azkeneko lotearen amaierako azterketako akta izenpetzen danetik zenbatzen hasita, behin aitaturako lanak egin dirala eta kalterik ez dagoala egiaztatu eta gero.”

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeché zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Alberto Bilbao zinegotziak, tasen eta zergaren aldarazpenari buruz idazkariari galdetu deutso %2ren igoerea ia zelan kalkulau dan:

Idazkariak dinotso era honetara egin dala: 2012ko urtarriletik 2013ko urtarrilera arteko Kontsumoko Prezioen Indizea zein izan zan ikusi da, eta berdin egin da hilez-hile eta hurrenez hurren 2012ko abuztutik 2013ko abuztu arteraino, eta, horreen guztiorreen urte arteko batz bestekoa hartu da kontuan, eta horrek %2 emoten dau.

Atoan, Aitor Apraiz alketeak berbea hartu eta hauxe dino:

Eurak abuztuan gai hau aztertzen hasi ziranean aurreko hileko Kontsumoko Prezioen Indizea erreferentzia modura hartu eben, hau da, 2012ko uztailetik 2013ko uztailela artekoa, eta %2koa baino portzentai handiagoa emoten eban, eta irailean gaiari barrero ekin eutsenean, orduan, kalkuluak idazkariak azaldu dauan modura egitea pentsau eben, hau da, abuztura arte. Ganera, beste udal batzuek zelan egiten daben aztertzeko parada izan daben ezkerro, ondorio modura esan daiteke udal batek erreferentzia modura KPI portzentai bat hartzen dauala eta beste udal batek beste bat, hau da, ez dabe erreferentzia bera erabilten.

Horrezaz gain, udalak onartuta daukan doikuntza plagintzan urtero-urtero izan behar diran diru sarrerak azaltzen dira, eta, hori bideratzeko be, neurriak hartzera behartuta gagoz.

Alberto Bilbaok kexea azaldu deutso udal gorbenua kobenientziatzko KPIak hartzen dauzalako eta ganera 15 urterako aurreikuspena egiten dauan doikuntza plangitzak urtero %3ko igoerea proposatzen dauala, jakin barik epe horren barruan urtetik urtera KPIk izan ahal dauzan gorabeherak.

Alkateak lehengoari eutsiz dinotso udalek KPI desberdinak hartzen dabezela, eta, ondorioz, udaletik udalera tributuen igoerak desbardinak izaten dirala, %1,7, %2, %2,2, eta abar.

Ametz Jauregizar zinegotziak dino %2ko kobenientziazko dala, ze udal batzarra urrikoa dan ezkerero, kalkulua egiteko 2012ko irailetik 2013ko irailera arteko KPIa hartzea logikoena izango zan, baina danok dakigunez portzentai asko txikiagoa da.

Felix Jauregizar zinegotzia adierazo dau 2012an estolderia zerbitzuaren tasea ipini zanean beharginen soldata KPIren arabera igoko zala adierazo zala, eta, orain, tasa horrerri %2 igoten jako, eta hori gehigitxu da.

Gai hori dala-eta Alkatearen eta BILDU/BAKIOko zinegotzien artean eztabaida izan da, eta bakotxak bere argudioari eutsiz amaitu da eztabaidea.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:20an emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria